



IKASTETXEA	AIXERROTA BHI	KODEA	015109
Arloa/ Irakasgaia	ERLIJIOA	Zikloa / Maila	1. DBH
Irakasleak	IZASKUN ZEBERIO	Ikasturtea	2015~16

HELBURUAK	EBALUAZIO - IRIZPIDEAK
<p>D.B.H.ko LEHENENGO MAILAREN GAITASUNAK</p> <ul style="list-style-type: none">• Gizakiaren moral eta giza dimentsioak osatzen duten baloreak balioetsi, hierarkizatu eta onartu.• Norberak hartutako aukeren moral fundamentuetaz ausnartu.• Ebanjelioak proposatutako bizitzaren zentzuarekin bat egiten duten proposamenak eta proiektuak bereiztu.• Giza elkarbizitzan oinarritzen diren etika baloreak fede kristauan aurkitu.• Orokor printzipio eta baloreetan Kristoren oinarria aurkitu.• Gizartean ematen diren injustizia eta diskriminazio egoerak aztertu.• Erlijioitsu adierazpen artistikoa, sinbolikoa, ohitura eta bizitza ereduak ezagutu eta balioetsi.• Gizatasunean agertzen diren erlijioitsu kultura desberdinak ezagutu eta balioetsi.• Pertsonal esperientzia sendotu atenzioa eta memoria trebatuz.• Norberaren bizitzaren zentzuan sakondu eta honek ematen dituen aukera desberdinak.• Pertsona bere osotasunean hartu, ikuspegi partzialak gaindituz.• Pertsonaren transzendente dimentsioa norberaganatu.<ul style="list-style-type: none">• Jesukristoren lekukotasuna balioetsi gizatasun berriaren eraikitze• prozesuan.• Natura Jainkoak sortu duela ulertu eta baloratu	<p>Helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Aintzinako erlijioetan agertutako elementuak gaur eguneko erlijioitsu kulturarekin harremanetan jarri.2. Aintzinako mito eta Kristautasuneko Jainkoaren artean bereizketak egin.3. Eskubide eta betebeharren oinarriak kristautasunaren gizakian aurkitu.4. Bizitza eta munduaren jatorria Jainko Aitaren maitasun seinale moduan azaldu.5. Itun Zaharreko itxaropenak Jesukristorekin lotzen jakin.6. Jesukristok bekatu eta heriotzari zein zentzu ematen dion arrazoitzen jakitea.7. Erreinu eta Zorionbideen mezua ezagutu, Kristoren proiektuarekin parekatu eta Erreinuaren parabolak Elizari aplikatzen jakin.8. Kristau moralean oinarritutako baloreak eta printzipioak arrazoitu eta gaur eguneko arazoei aplikatzen jakin.9. Sexualitatea Jainkoaren opari bezala baloratzea eta gai honetan kristau moralaren oinarriak aplikatzen jakitea.10. Ezkontzaren sakramentutik ondorioztatu bere balore garrantzitsuenak: osotasunean norbera eman, konprometzua, fidelitatea eta ugaltze zentzua.



HELBURUAK:

1. Erlijioetsu fenomenoaren elementu desberdinak ezagutu, erlijio desberdinak ulertu ahal izateko.
 - Erlijioetsu fenomenoaren elementu desberdinak aurkitu.
 - Erlijio desberdinen elementu amankomunak aurkitu eta ezagutu baita erlijio fenomenoaren bilakaera.
2. Erlijio nagusiek, gizakiak egindako azken galdereen aurrean, emandako erantzunak arrazoitu.
 - Desagertutako erlijioek eta hinduismoak, gizakiaren arazoari, ematen duten erantzunak ulertu eta arrazoitu.
 - Desagertutako erlijioetako mitoen zentzua ulertu eta Jainkoa Kristoren bitartez errebelatzen dela bereiztu.
3. Kristautasunaren edukin nagusiak ezagutu: gizakia Jainkoak sortu duela eta bere seme-alaba izateko sortuak izan garela.
 - Jainkoa kreatzaile eta Aita moduan onartu, bizitza doainik ematen digulako.
 - Biblian agertutako Kreazio errelatetik, gizaki eta munduaren kristau kontzepzioa atera.
 - Itun Zaharrean agindutako Mesiasa Kristorekin bat egin, Jainkoaren semea gizona eginez.
4. Jesukristoren mezua eta bizitza aztertuz, Kristo Jainkoaren Semea dela aurkitu, hau da, gizakien artean sortutako salbatzailea.
 - Jainkoak, Jesukristorez bitartez, bekatu eta heriotzatik salbatzen gaituela ulertu.
 - Jainkoaren errebelazioa, Kristoren eginetan eta hitzetan
 - aurkitu.
 - Bekatuaren jatorria aurkitu eta

11. Zoriontasunaren zentzua eta aurkitzeko bideak, erlijio desberdinen moraletan aurkitu eta konparatu (budismoan, kristautasunean eta islaman).

D.B.H.1.MAILARAKO GUTXIENAK EDUKINAK

1. Erlijio nagusien elementu garrantzitsuenak ezagutu, aukera guztiak konparatu, denak onartuz eta errespetatzeko.
2. Euskal Herriko mitologia ezagutu eta baloratu.
3. Ikaskideak, materiala eta irakaslearekiko begirunea lortu, modu onak guztien artean erabiliz.
4. Pertsona izatearen gaitasuna landu.



<p>horrek gizakiarekiko eta Jainkoarekiko dituen ondorioak aztertu.</p> <ul style="list-style-type: none">• Jesusen heriotza eta berbizkuntzako gertaerak ezagutu eta bere salbazioaren zentzua ulertu. <p>5. Kristoren salbazio gertaera ulertu eta sakramentu bakoitzeko ospakizun zentzua bereiztu.</p> <ul style="list-style-type: none">• Norberaren gorputza eta norberaren dimentsio eta ahalmenak ezagutu eta balioetsi.• Sexualitatea Jainkoaren dohain moduan hartu eta sexualitatean kristau moraleko oinarriak aplikatzen jakin.• Ezkontza sakramentuko baloreak aurkitu: pertsona guztiz ematen da, konpromizua hartzen du eta fideltasuna agertzen da. <p>6. Kristau batek izan behar dituen konpromezuak Jainkoarekiko, norberarekiko eta munduarekiko aztertu eta konparatu gizartean eta veste erlijioetan dauzen aukera desberdinekin.</p> <ul style="list-style-type: none">• Mariaren bizitza eta fedea ezagutu: Jainkoaren Ama moduan eta sinesdunen eredu moduan.• Zoriontasunerako zentzua ulertu eta jakin kristau moralaren arabera nola lortu.• Kristau morala, budismo eta islamismo moralarekin konparatu, beste sinismeneko pertsonekin errespetuko harremanak izateko. <p>7. Kristau fedearen oinarriak aztertu erlijio nagusiak kritikoki baloratzeko.</p> <ul style="list-style-type: none">• Betiereko bizitzan kristau fedea aurkitu.• Antzinako garaian gizakiak emandako erantzunak ulertu.•	
--	--



EDUKIEN SEKUENTZIA (denbora –tarteka; unitate didaktikoa, proiektua; ikaskuntza-nukleoa edo beste moduren batera antolatuta)

LEHENENGO HIRUHILABETEAN

1. Eduki multzoa: elkar ezagutzen

- Dinamika desberdinak egingo dira elkarren artean ezagutzeko eta konfidantza minimo bat denen artean ezartzeko.

2.- . Eduki multzoa: Zer den eta zer ez den erlijioa

- Argitu zer den sekta bat (dituen helburuak, metodologia...), magia (magia mota desberdinak) eta superstizioa. Gero erlijioak dituen elementuekin konparatu eta desberdindu. Hau dena laburpenen bidez egin.

3.- . Eduki multzoa: Erlijio nagusien sailkapena eta kokapena.

- Erlijio nagusien sailkapena egin mapa batean kokatuz. Bakoitzak dituen jarraitzaile kopurua jarritz eta behatuz non kokatzen diren munduaren zehar. Gero ondorioak atera eta koadernoan idatzi.

BIGARREN HIRUHILABETEAN

4.- Eduki multzoa: Erlijioaren sorrera

- Testu bat eman non erlijioa eta gizakiaren sorrera bat izan diren . Honen frogak kobazuloetan aurkitutako margoak eta aztarnetan aurkitutako hileta erritoak ditugu. Ikasleek testua ulertu eta ondorioak koadernoan jarriko dituzte.

5.- Eduki multzoa: Euskal Herriko antzinako erlijioa: mitologia

- Euskal Herriko mitologiako pertsonai nagusiak ikusiko ditugu.

6.-Eduki multzoa: Antzinako erlijioak: Greziakoa, Erromakoa eta Egiptokoa

- Antzinako erlijioak komentatu ikasleek historian ikusitako datuetan oinarrituta..



HIRUGARREN HIRUHILABETEAN

7.-Eduki multzoa: Erlijio monoteistak: Judaismoa, Islama eta Kristautasuna

- Landuko dugu Islama erlijioa beren oinarriko elementuak aztertuz. Beste monoteista erlijioekin konparatuz.

8.- Eduki multzoa: Ekialdeko erlijioak: Hinduismo eta Budismoa.

- Budismoko erlijioa sakonduko da gehien bat, hinduismoari erreferentziak eginez.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik]

Erljio eta Moral katolikoaren kurrikuluma, kristau mezuaren laburpena da, ikasleen adinera egokitzen dena, baita behar kultural eta hezkuntza eskakizunetara.

Erljiotsu fenomenoak ikuspuntu desberdinetatik aztertzen du:

- ✓ **Historiko eta kultural dimentsiotik: Historia eta kultural ondarea erljiotsu zentzuz beterik dago eta hori aztertuz hobeto ulertuko dugu gaur eguneko mundua.**
- ✓ **Gizatiartze dimentsiotik: Erljio Katolikoak pertsona bere osotasunean bilakatzen laguntzen du, azkenengo galdereei erantzunak emanez eta trszendenterantz zabalduz.**
- ✓ **Moral eta etiko dimentsiotik: Erljio Katolikoak bizitza ulertzeko modu bat eskeintzen du eta koherentziaz jokatzeko modu bat ideia, balore, sineste eta printzipio batzuei jarraituz.**

Beraz, lehenengo metodologiko erizpidea, ikaslearen errealitatetik hasia izango da.

Hurrengo puntuetan oinarrituko da:

- **Ikasleek gai zehatz bati buruz zer dakiten hasia.**
- **Ikasleen behar eta interesetik konektatzea.**
- **Ikasleei proposatu zeintzuk izango diren ikasketa berrien helburuak motibatuta egoteko.**



— Heziketa intentzio eta ikasgelan egiten diren ariketen artean koherentzia egotea.

— Ikasketak errealitateari aplikatzea. Horretarako beharrezkoa izango da erabiltzen den hizkuntza ikasleentzat ulergarria eta hurbila izatea. Erlijio Katolikoaren eta beste erlijioen hiztegia ulertu ahal zateko.

Bigarren metodologiko erizpidea kritikoa izango dela da: ikasleak hurrengo hau lortzea nahi dugu:

- Erlijio fenomenoaren baloratzea eta gizaki guztien duintasun sagaratuaren errespetatzea.
- Erlijioak historikoki zelako eragina duen eta kultura eta gizakiaren zati garrantzitsu bat den ikustea.
- Oinarrizko balore eta erizpide batzuk lortzea norberaren historia eta mundua interpretatzeko eta bereganatzeko.
- Munduaren ikuspegi armoniosu bat lortzea, gure gizartean gero eta zoriontsuago, askeago eta arduratsuenago izateko.

Beste metodologiko erizpidea pluralitatea da: ikasten dugunean gure ezagutzeko eskemak aldatzen eta aberasten ditugu, errealitatea hobeto ulertzeko eta aldatu ahal izateko.

- * Baliabide desberdinak erabili: azterketak, debateak, erakusketak... esperientzi desberdinak lortzeko eta erlijiozko edukin desberdinak izateko eta gizartean aukera desberdinak dauzela konturatzeko eta errespetatzeko.

Laugarren metodologiko erizpidea disziplina arteko ikasgaia dela konturatzeko da.

- Ezin da izan ikasgai aparteko bat; beti egongo da beste ikasgaien artean lotuta. Gure kulturarekin topo egin behar dugu beste ikasgaiak esaten ditugutena kontutan hartuz. Batez ere, ikasleei koherentzia ematen dieten arloekin.

1. ERABILIKO DIREN TRESNAK ETA BALIABIDEAK.

1. Irakaslearen azalpenak.
2. Departamentuaren karpeta errekurtsuak.



3. **Eliza Katolikoaren Katezismoa.**
4. **Biblia.**
5. **Hirugarren Munduko informazioa, aldizkariak, egunkariak...**
6. **Pelikulak eta dokumentalak.**
7. **Informatika gelako interneta.**
8. **Informatika programak: Blogs. Wikis. Web 2.0**
9. **Muraletako erakusketak.**
10. **Jolas jarduerak: gurutzegramak, letra-sopak...**
11. **Abestiak.**
12. **Taldeko jokuak eta dinamikak.**
13. **Power pointen aurkezpena.**
14. **Irteera bat egingo da Abendu aldera, Bilboko jaiotzak ikusteko edo aukera izango bagenu Ikusiz-Ikasi egitarauan partehartu.**

EBALUAZIO TRESNAK

[ahozko eta idatzizko

probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioa, kontratu didaktikoa...]

Ebaluazio jarraia denez, irakasle ekintza guztietan egin behar da. Erljio arloan ebaluazio jarraia modu honetan ulertzen da:

*** Unitate didaktiko bakoitzean agertzen diren hasierako ariketek balio izango dute ikasleen diagnostikoa egiteko.**

*** Sakontze ariketek, ariketa desberdinak izango dituzte, irakasle ekintza hobetzeko, behaketa eta gogoeta eginez (formakuntza ebaluaketa).**

KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK

[ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]

Ikaslearen nota jartzeko hurrengo puntuak kontutan hartuko dira:

1. KLASE- ETORTZEA

Derrigorrezkoa beste guztia kontutan hartzeko.

2. IKASLEAREN LAN PERTSONALA.

Norberaren koadernoak landu, baita egiten diren muralak eta klaseko-lanak.

3. GELAN PARTEHARTZEA

Galderak egin, erantzunak eman, argitasunak eskatu, iradokizunak eman (irakasle zein ikasleei).

5. TALDEKO-LANA

Irakasleak agindutako talde-lanak.

6. KLASEKO KOADERNOA.



Argitu behar dugu ikaslearen fedea ez dela ebaluatzen, pertsonal kontzientziaren intimitatea errespetatu behar du ebaluaketak eta erlijio irakaskuntzaren alderdi batzuk bakarrik ebaluatu:

a) Gelako lanetan hurrengo puntuak baloratuko dira:

- * Informazioaren erabilera eta landuera.
- * Edukina proposatutako eskemari egokituta egotea.
- * Ortografiko akatsarik ez egotea.
- * Lanak ordenatuak eta garbi aurkeztea.
- * Ikasleen zentzu kritikoa eta sortzailea.

b) Ikaslearen koadernoak izan beharko ditu: eskatutako ariketa guztiak, debateen ondorio guztiak, amankomunean jartzen diren datuak, klaseko apunteak, pertsonal lanak...Koadernoak entregatuko da ebaluaketa bakoitzean eta kurtso amaieran.

d) Jarreraren aldetik, ikaslea apurka-apurka joango da balore batzuk jasotzen, errespetuzko elkarbizitzarako eta jarrera solidarioa eta kritikoa agertzeko.

Beraz, ebaluazio prozedurak eta baliabideak hurrengo hauek izango dira:

- a.- Ikasgelan egindako ariketak dokumentalak eta pelikulak ikusi eta gero.
- b.- Klaseko koadernoaren zuzenketa.
- c.- Klaseko lanak testu idatzien gainean.
- d.- Ikaslearen behaketa (atentzioa, partehartzea, taldeko-lanak, jarrera...).
- e.- Gaiaren ulermena eta adierazpena.

Nota jarriko da hurrengo puntuak kontutan hartuz:

1)-**KLASEKO JARRERA**: Ikasleak klasean egunero duen jarrera behaketa-koadro baten apuntatuko da, hurrengo puntuak kontutan hartuz:

a).1.-**Asistentzia eta puntualtasuna**:

- Klasera etortzea derrigorrezkoa da. Ebaluaketa bakoitzean 3 falta justifikatu gabe izanik suspenditzen da gaia. Falta larria egiteagatik baten bat kaleratua izanez gero, falta horrek zenbatuko du notan ere, justifikatu gabeko falta moduan.

a).2.- **Errespetoa**: Ikaskideko begirunea (elkar ez jo, ez insultatu, ez bota gauzak, banan-banan hitz egin...), materialarekiko begirunea (Ez apurtu ezer, ez zikindu, ez bota gauzak,...) irakaslearekiko begirunea.

a).3.- **Materiala ekarri eta lana egin**: Klasera beti koadernoak eraman behar da eta emandako fotokopiak ere.

a).4.- **Adi egon eta partehartu ahal den guztia**.

a). 5.- **Interesa**.

a). 6.- **Klaseak ez ebaki**.

Puntu guzti hauek egunero aztertuko dira eta koadroan apuntatuko dira positiboak eta negatiboak.

Kenketak eta batuketak egin eta gero :

- **ebaluaketa bakoitzean 10 negatibo pilatzen badira suspenditzen da gaia.**



f.- Informazioaren azterketa, laburpena, interpretazioa eta erabilera.

g.- Ardura, ahaleginak, errespetua, talde-lana, partehartzea, tolerantzia eta sormena.

- **9 negatibotik 3 negatibora** ateratzen dutenek **5 bat** izango dute jarreran.

- **2 negatibotik 0 negatibora** ateratzen dutenek **6 bat** izango dute jarreran.

- **Positibo 1 edo 2** ateratzen dutenek **7 bat** izango dute jarreran.

- **3 edo 4 positibo** ateratzen dutenek **8 bat** izango dute jarreran.

- **5, 6 edo 7 positibo** ateratzen dutenek **9 bat** izango dute jarreran.

- **8 positibo edo gehiago** ateratzen dutenek **10 bat** izango dute jarreran.

Jarrerako notak %50a balio izango du, gaindituta baldin badago.

2) **KLASEKO LANA**: Klasean egiten den guztia koaderno batean bilduko da. Koaderno ondo izateko egunean eramango da, garbi eta ordenaturik. **Koaderno edozein momentuan eskatu ahal da nota jartzeko, beraz beti eguneratuta izan behar dute.**

Baloratuko dira lanak, ariketak eta koadernoak. Dena eginda, ondo eta informazioa landuta badago

Gaia aprobatzeko alde batetik jarrera gainditu behar da eta bestetik lana, media egin ahal izateko.

Jarraipeneko ebaluaketa egingo da, hau da, lehenengo ebaluaketa suspendituta izanez gero, bigarrena aprobaturik biak gaindituko dira. Irakasleak esango dio ikasle bakoitzari zer egin behar duen kasu



	<p>bakoitzari.</p> <p>Gainera pasadan urteko erlijioa gelditzen bazaie, lehenengo ebaluaketa aprobatur gero, aprobatur izando dute.</p> <p>Notako % 50a lanen eta koadernoren bidez neurtuko da.</p> <p>Aurreko taulan esandako moduan, gaia gainditzeko alde batetik gaintu behar dute jarrera eta bestetik lana, media egin ahal izateko. Notako % 50a jarreraren nota izango da, behaketa koadroaren bidez neurtuko dena.</p> <p>- Ez dira, orokorrean, etxerako lanak bidaliko. Baina baten batek klasean ez badu egin edo amaitu klasean egin behar zena, etxean bukatu beharko du.</p> <p>- Saiatuko gara debateak eta konkurtsoak antolatzen positiboak irabazi ahal izateko (partehartzen duenak eta besteen eritziak errespetatzen duenak).</p>
--	---

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak,

antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekuperazio-sistema...]

ANIZTASUN NEURRIAK

Ikasle bereziren bat klasean baldin badugu: heziketa behar bereziak dituenak, minusbalotasun fisiko edo psikiko duena edo hizkuntz berezia behar duena....Ikastetxearen Aniztasun Atentzio Planean datorrena jarraituko da.

~Ikasgai honetan egingo dena beti Zentruaren Orientazio Sailarekin koordinatuko da eta adituen esanetara (Terapeutika Pedagogia ematen dutenak) jokatuko da. Ikasle desberdinak dituzten interes desberdinak, metodologi pluralen bidez erantzungo da, ikasle bakoitzak bere ikasketa egoeraren arabera eraman dezan.



Programazioak izango ditu alderdi batzuk heziketa prozesuan indibidualizazioa kontutan hartzeko.

Horretarako hurrengo neurriak hartuko dira:

- a. Edukinen artean, oinarrizkoak zeintzuk diren bereiztu eta zeintzuk osagarriak diren, kasu bakoitzean aproposena aplikatzeko.**
- b. Edukin bakoitzarentzat ariketa desberdinak proposatu.**
- c. Metodologi desberdinak erabili.**
- d. Material didaktiko desberdinak erabili, zailtasun neurri desberdinekin.**
- e. Interakzioa lortzeko lan talde desberdinak sortu: talde malguak eta erritmo desberdinekin. Lan taldeak ez dira beti berdinak izango, lanaren arabera modu desberdinez osatuko dira.**
- f. Ebaluazio erizpide bakoitzeko neurri desberdinak markatu.**

AURREKO KURTSOA GAINDITZEKO OSAGARRI NEURRIAK.

Errefortsu neurriak jarraipen pertsonala merezi dute, lehenengo ebaluaketan irakasleak konprobatzeko ikasle horrek edukin minimoak lortu dituen ala ez.

Ikasleren batek aurreko kurtsoan Erlijio Katoliko ikasgaia pendiente izan badu eta hurrengo kurtsoan ez bada ikasgai horretan matrikulatu, lantxo bat egin beharko du edukin minimoei buruz, ikasgai hori gaindi dezan.

OHARRAK